ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 20a, astelehena • 58 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ARTZINIEGAKO UDALA

**Hasierako onespena ematea Artziniegako “La Hormaza” SAUR-1 sektorearen egikaritze unitateko hirigintzako kontserbazio entitatearen estatutuen proposamenari**

Alkatearen apirilaren 25eko 107/2019 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Artziniegako “La Hormaza” SAUR-1 sektorearen egikaritze unitateko hirigintzako kontserbazio entitatearen estatutuen proposamenari. Proposamen hori Sabino Gutiérrez Bañaresek, “La Hormaza” SAUR-1 sektorearen egikaritze unitateko hitzarmen batzordeko idazkari lanetan, aurkeztu zuen 2019ko apirilaren 15ean; eta, hura behin betiko onesteko, aldez aurretik 2. eta 3. artikuluak aldatu behar ziren; hain zuzen ere, kendu egin behar zen, zuzen ez erabiltzeagatik edo ohiz kanpo erabiltzeagatik (basakeriak eta antzekoak), hiri altzarietan sortzen ziren kalteak onesteari egiten zitzaion aipamena. Horrako hori, erakundearen sozietatearen egoitzan jakinaraziko da, banan-banan jakinaraziz eskubideen eta sektorean kaltetutako ondasunen titularrei, jakinarazi eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan, egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egunes, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edonork aukera izan dezan egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Artziniega, 2019ko maiatzaren 9a

*Alkatea*
*IÑIGO GÓMEZ UNZUETA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.20 05:31:34 Z